

Udaleko Liburutegi Sareak hiruhileko honetarako jarduera programa jarri du martxan, adin guztiei zuzendutako 40 proposamen ingururekin, ipuin kontalariak, tailerrak eta hitzaldiak, besteak beste

Zientzia, txotxongilo edo mozorro tailerrak, ipuin-kontalari saioak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, erakusketak, eta hitzaldiak izango dira familia osoari zuzendutako eskaintzaren ardatz. Arreta berezia eskainiko zaie umei eta gazteei.

Bilboko liburutegi sareak, familia osoari zuzendutako jarduera programa osatua diseinatu du. Programa horretan 40 proposamen baino gehiago jasotzen dira, tailerrak, hitzaldiak eta ipuin kontalarien saioak, irakurketa bultzatzeko, liburutegien alderdi ludikoenaz gozatzeko eta ezagutzaren alor guztiak landu ahal izateko.

Bere helburu estrategikoekin bat etorriz, beste urte batez, Bilboko Udal Liburutegi Sareak irakurketa aurreko hartzaileei bereziki zuzendutako jarduerekin duen konpromisoarekin jarraituko du (3 eta 5 urte arteko umeak), oso goizetik irakurketarako grina pizteko, jolasen eta ipuinen bitartez. Horrela, programan, euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko ipuin kontalariak izango ditugu, 3 eta 12 urte arteko umei zuzenduta. Horrela, programazioa urtarrilaren 12an abiatuko da, ingeleseko ipuin kontalari saio batekin, Deustuko Liburutegian, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Jada ohikoak diren hitzaldiekin eta idazleekin egiten diren topaketekin batera, udal liburutegiek lekua gordeko dute tailerrentzat, umeen eta gazteen artean interes gehien sortzen duen jardueretako batentzat. Zientzia, txotxongiloak edo mozorroak egitea izango dira lehen hiruhilekorako programatu diren tailerretan landuko diren gaietako batzuk. Tailerren helburua gazteek liburutegietan egoteaz modu erakargarrian eta ludikoan gozatzea izango da. Ohikoa denez, jarduera horietan parte hartzea doakoa izango da, baina aurretik izena eman beharko da, leku kopurua mugatua baita.

Programazioaren barruan helduentzat beren beregi zuzendutako jarduerak ere sartzen dira, irakurketa tailerrak, besteak beste. Tailer horietako bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz eskainiko dira, eta hamabost egunez behin irakurle talde bat bilduko dute Bidebarrietako Liburutegian, otsailaren amaieratik aurrera, proposatutako zenbait libururen inguruan. Tailerretan parte hartzeko izena emateko epea datorren otsailaren 6an zabalduko da.

Zerbitzuen karta

Beste alde batetik, Udal Liburutegien Sareak etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoari eusten dio. Konpromiso hori 2006an abiatu zen, bere Zerbitzu Kartaren lehen edizioak argia ikusi zuenean. Karta hark Zerbitzu Ziurtatuaren AENOR N marka jaso zuen, eta Estatu osoan ziurtapen hori lortu zuen lehen liburutegi publikoa izan zen.

Horrela, kartaren bosgarren edizioa argitaratu berri da. Edizio berrian, epealdi honetan sartu diren ekipamendu eta zerbitzuak sartzen dira, baina baita erabiltzaileek adierazitako hobekuntzarako iradokizunak ere. Iradokizun horiek, 2012. urtearen hasieran egindako itxaropen azterlanean zein urteroko gogobetetasun inkestan jaso dira. Galdetegi horietan Udal Liburutegiek 7,7ko puntuazio orokorra jaso dute. Inkesta horretan ikusten denez, inkesta egin duten pertsonen %96 Udal Liburutegi Sarea gomendatzeko prest edo oso prest legoke.

Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko den Zerbitzuen Kartaren paperezko edizioa, eta bertan hartzen diren konpromisoak betetzearen urteko emaitza, guztien esku daude udal liburutegi guztietan, eta www.bilbao.net/bibliotecas web gunearen bitartez ere kontsulta daiteke.

Bilboko liburutegi sarea 16 liburutegik osatzen dute, eta bertan, hainbat euskarritan (liburuak, aldizkariak, bideoak, CD-ROM-ak, DVD-ak) dauden 400.000 ale baino gehiagoz osatutako bilduma dago hiritar guztien esku, gaikako alor guztiak bilduz eta etengabe eguneratuz. Halaber, zentro horiek Interneterako konexioak eta wi-fi guneak dituzte.

La Red de Bibliotecas municipales inaugura la programación para este trimestre con 40 actividades dirigidas a personas de todas las edades, que incluyen cuentacuentos, talleres y conferencias

Talleres científicos, de marionetas o para elaborar disfraces, además de sesiones de cuenta-cuentos en euskera, castellano e inglés, y conferencias centran la oferta dirigida a toda la familia, con especial atención al público infantil y juvenil.

La Red de Bibliotecas Municipales de Bilbao ha diseñado un completo programa de actividades dirigido a toda la familia, que incluye más de 40 propuestas, entre talleres, charlas y sesiones de cuentacuentos para animar a la lectura, disfrutar de la faceta más lúdica de las bibliotecas y tomar contacto con distintas áreas del conocimiento.

En línea con sus objetivos estratégicos, la Red de Bibliotecas de Bilbao mantendrá su compromiso un año más con las actividades especialmente dirigidas al público prelector, (niños y niñas de entre 3 y 5 años), con juegos y cuentos para despertar el gusto por la lectura desde las edades más tempranas. Así, el programa incluye cuentacuentos en euskera, castellano e inglés, para el público de 3 a 12 años. Precisamente la programación arrancará el día 12 con una sesión de cuentacuentos en inglés, en la Biblioteca de Deusto, a partir de las 12.00 horas.

Junto a las ya tradicionales conferencias y encuentros con escritores, un año más las bibliotecas municipales reservarán un espacio para los talleres, una de las actividades que despierta mayor interés entre el público infantil y juvenil. Ciencia, marionetas o elaboración de disfraces serán las áreas de trabajo de los talleres programados para el primer trimestre, que buscan que los usuarios/as más jóvenes puedan disfrutar de su estancia en las bibliotecas de una manera atractiva y lúdica. Como ya es habitual, la participación en estas actividades, es gratuita, pero con inscripción previa, ya que las plazas son limitadas.

La programación incluye también actividades específicas para el público adulto, como los talleres de lectura, uno en euskera y otro en castellano, que reunirán quincenalmente en la Biblioteca de Bidebarrieta a un grupo de lectores desde finales del mes de febrero, para comentar y compartir experiencias lectoras en torno a una serie de libros propuestos. El plazo de inscripción para los talleres se abrirá el próximo día 6 de febrero.

Carta de Servicios

Por otro lado, la Red de Bibliotecas Municipales mantiene el compromiso con la mejora continua, adquirido en 2006 cuando vio la luz la primera edición de su Carta de Servicios, que logró la marca AENOR N de Servicio Certificado, convirtiéndose en el primer servicio de biblioteca pública del Estado en obtener esa certificación.

De esta forma se acaba de publicar la quinta edición de la carta, que recoge los nuevos equipamientos y servicios incorporados en este tiempo, pero también las sugerencias de mejora manifestadas por las personas usuarias y recogidas, tanto en el estudio de expectativas realizado a primeros de 2012, como en la encuesta de satisfacción anual, en la que las Bibliotecas Municipales han obtenido una calificación global de 7,7. Según esa misma encuesta, el 96% de las personas encuestadas se muestra dispuesta o muy dispuesta a recomendar la Red de Bibliotecas Municipales.

La edición impresa de la Carta de Servicios, en euskera y castellano, así como el resultado anual del cumplimiento de los compromisos adquiridos en ella, están a disposición del público en todas las bibliotecas municipales y puede consultarse asimismo a través de www.bilbao.net/bibliotecas.

La red de bibliotecas municipales de Bilbao está compuesta por 16 centros que ponen a disposición de todos los ciudadanos una colección compuesta por más de 400.000 volúmenes en diferentes soportes (libros, revistas, videos, CD-ROM, DVD) que abarca todas las áreas temáticas y se mantiene permanentemente actualizada. Asimismo, los centros están equipados con ordenadores con conexión a Internet y áreas wi-fi.